


IGELDOKO ESKOLAK
D MAILA**IGELDO PLAZA, 1**

Egilea eta data: Nemesio Barrio; 1887

Deskribapena

Eraikinak behe oina eta hiru goi oin ditu, azkena mantsardatua. Oinplano angeluzuzenekoa, fatxada nagusiak, mortero erliebeen bidezko lau bao uztartuz osaturiko konposizio erregularra du. Lehen eta bigarren oinetan forma kateatuak marrazten dituzte; behe oinean harlanduzko pilarez eta buruhormez konfiguraturako karrerape bateko baoetan eraldatzen da. Fatxada nagusiko ardatza eta eraikinaren izaera publikoa adierazten dira mantsardaren mailan kokatutako erloju baten bitartez. Eraikina Eskola Publikoak izenez ezagutzen da eta, hasieran, Udaletxea ere bertan jartzeko asmoz eraiki zela pentsa daiteke.

Beranduago, Jose de Goicoak estalkipeko oina eraberritzeko proiektua egin zuen oin hori mantsardan eraldatuz. Ez zen 1911ra arte gauzatu eraldaketa hori. Urte horretan Juan R Aldayk eraikinaren eraberritze integrala egin zuen bi jasodura eraikiz, aurrenekoa fatxada planoan eta bigarrena mantsardatua. Berregituratze horren ondoren udaletxe eta ikastetxe gisa erabiltzen jarraitu zuten. Behe oineko karrerapean alkatetza eta sorospen gela zeuden; lehen oinean neskenzako eskola, bigarren oinean mutilentzako eskola, eta oin mantsardatuan etxebizitza.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra:

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatu dituzten irizpide orokorretara egokituko da.

2.- Berariazko erregimena.

- A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
- B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
- C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: Jasodurak ez dira onartzen.